

FAMILIA, ZUZENTASUNERAKO HEZKUNTZARAKO EREMU

Denok txalo egin diogu bere jabetzat duen jostailu, gozoki edo txupetearen aurrean, norbaitek kendu edo hartu nahi dion bakoitzean, "neurea" esaten duen haurrari. Egundoko grazia egiten digu eta, azkenean, gizakiekin komunikatzen dela, haur horrek gizakiekin hartu-emana duela gogorarazten.

Izan ere, 'neurea', haurrak esaten lehendabizi esaten dituen hitzen artean egoteaz gainera, hautematen duen sentsaziorik argiena da. Hau neure ama da, neure sehaska, neure biberioia, neure gauzak, neureak eta neure pertsonak..., guzti horrek eragiten dion sentsazioa, segurtasunarena da, 'neu' naiz pentsarazten dio, kontuan eta aintzat hartzen dutela...

Gero, beste kontu bat da, 'geure' delakora pasatzea. Eta urrats hori ere familian ematen da, denak inguruan direla; pastel-bandejaren edo jostailu-dendako erakusleihoaren aurrean, "hori niretzat, eta hori, eta hori, eta hori, eta halako hura..., denak niretzat", dioen haurrari, inguruko horiek, familiak erakusten diote apurka-apurka, berak badituela beharrak baina badirela beste batzuk ere gauza bera gertatzen zaienak.

Eta ikusten du anai-arrebak, gurasoek... horiek ere beren lekua, beren denbora, beren gauzak behar dituztela; eta pastelak banatu egin behar direla... Horrela, apurka-apurka, haurrak "txokolatea duena niretzat eta beste hori nire aitarentzat, amarentzat, anai-arrebarentzat...", esaten du, bere beharrez jabetzeaz gainera, besteek ere ase beharreko beharrak dituztela antzemanaz.

"Ni" delakotik "gu" delakora igarotzea, beraz, familia bizitzan gertatzen da. Badira haurraren "neurea, neurea" horrek egundoko grazia egiten dien eta "gu" delakoa bizitzen laguntzen ez duten familiak, "gu" hori besteen aurrean solidario, arretatsu eta eskuzabal bihurtuko duen hitz majikoa dela konturatu gabe.

Haurrari bere lekua, eremua, jabegoa, arreta eta zainketa aitortu behar zaizkio; haurra errespetatu egin behar da, eta batia bere gauzak, denbora eta beharrak, bere autoestimua eragiteko baina, horren parean, ezinbestekoa da besteak, bere ondoan, bere inguruan bizi direnak aitortzen erakustea, beste horiek ere beren denbora, lekua behar dutela, arreta eta beharrizanak asetzea ezinbestekoa dutela, ikusten laguntzea.

Hurtzarotan beren beharrak ase gabe izan dituen hainbat gurasok ahalegin guztiak eta bi egiten dituzte haurrenak asetzeko eta ondorioz haurrak "neurea", bere burua eta bere beharrak baizik ez ditu ikusten. Hari begira-begira daude, haurraren edozein nahi asetzeko prest eta, horregatik, ez diote "gu" alderdi edo eremuaz jabetzen uzten eta berekoi eta egozentriko bihurtzen dira eta baita biguin ere, ez duelako ez frustrazioa ez norbaiten alde zerbaiti uko egitearen sakrifizioa ezagutzen.

Gaur egungo gazte asko eta asko beren bizitzan hainbat gauzaren gabezia izan duten gurasoen seme-alaba dira; bizitzan zehar gauza asko falta izan zaie eta, seme-alabak izatean, hauei denetik erosi izan diete, zituzten eta ez zituzten gauzak eman, era guztietako zainketa, ikasketa eta aukerak... eta trukean ezer eskatu gabe...

Gazteok egozentriko huts bihurtu dira eta ez zaie burutik pasatu ere egiten gurasoek, ingurukoek... ezer behar dutenik, gurasoek den-dena eman dutela eta beraiek ere zerbait behar dutela... Eta, ondorioz, belaunaldi biguina sortzen da, berehala, gorabehera txikienaren aurrean, etsi egiten dute, dena zapuztu zaiela iruditzen... Lantxo bat aurkitu eta diru apur bat irabazi orduko, berehala xahutzen dute, bidaian edo dena delakoan, etorkizunari begira itsulapikoan sartu orde zerbait behar duenarekin erdibanatu gabe...

Eta sarriegi, denetik izan duten seme-alabek, gizarte eta intelektual mailak aparra bezain arin gora egin duten gazteek, lotsa sentitzen dute gurasoek, kultura gutxi dutelako edo gizarte maila baxua... Eta gutxietsi egiten dituzte, nagusi sentitzen direlako gurasoek jadedetsi ez duten heziketa akademikoa edo baliabideak dituztelako. Seme-alaba hauetako askok eta askok, gaztaroan, makina bat bidaia egin du, gurasoak jaioterritik atera gabe daudelarik. Pribilegioen bidegabeko banaketa hau egundoko naturaltasunez sustatzen da familia askotan, nagusiekiko inongo sentiberatasun eta elkartasunik ez duen gazteria sorraraziz.

Familian ikasten du gizabanakoak gizartean bizitzen; familian, anai-arrebarekin pastela, gela, jertsea edo besaulkia konpartituz, anai-arreba, bizikidea, antzematen du, elkarren beharra dutela, eta elkarri lekua egin beharko diotela, denak ere ondo bizitzeko.

Familian, bonboi gozo hori zehatz-mehatz eta umorez erdibanatzen denean, oilaskoaren lepoa, eskasena dela-eta, inork hartzen ez duenean, azken mokadua, denek nahi dutelako, erretiluan geratzen denean eta guztiek elkarri eskaintzen diotenean, edozeinek behar duenari eskatu baino lehen ura ateratzen dionean,... "gu" eraikitzen ari da. Xehetasun txiki horiek egiten dute bizitza eta horiei esker elkarri arretatsu begiratzen diogu eta jarrera beraz bizi gara besteei dagokienez.

Zuzentasuna bakoitzari dagokiona emateko dohaina bada, gaur egun gizarteak ez du zuzen bizi zuzentasuna. Familiak gehiegi gurtzen ditu haur berriak, urriak, burtsan ondo kotizatzen duten eta gure bizitzako erritmoan gogaikarri bihurtu zaizkigun izakiak.

Gaur egun, bikote batek lehenengo haurdunaldia bizi duenean, logela zoragarria prestatzen dio haurrari, behar edo amets ditzakeen traste guztiez, hobeto esanda, bizitza osoan erabiliko dituen baino askoz traste gehiagoz hornituta. Gurasoek, aiton-amonek eta gertukoek, izaki berria etorri arteko ilusioz beteriko itzarotea eta etorrera horren inguruko traste guzti horiek nahastatuko dituzte. Denda espezializatuek egundoko negozioa dute haurraren inguruko kultu estetiko eta ornamental honekin. Eta guzti hori, bizitza osorako dan zerbaiten hasiera baizik ez da: haurrak etxeko erregetzat hartzen du bere burua, munduaren zilbortzat eta irudipen horrekin bizi izango du bere haurtzaroa eta gaztaro osoa. Honela heldu berekoi bihurtuko da, besteen beharrez jabetzeko gauza ez den heldu.

Eta familian ikasten da zuzentasuna bizitzen, familia barruko norbait lehenengo eta, bero, kanpoko norbait bakarrik ikusten denean. Beste gizaki batzuek arduratzen direnean, mahaietan, familiatik kanpokoan poztasun eta iluntasunak konpartitzen

direnean, auzokide eta adiskideei harrera egiten zaienean, beste bizitza batzuek arduratzen denean.

Familian telebista ikusteko erak, gertaerak komentatzeko erak, beste gizon eta emakume batzuen atsekabeak, gizarte bidegabekeriak, banaketa solidarioak, sentitzeko era baldintzatuko dute haurtzarotik. Familian, besteei gertatzen zaienak ez dituela axolagabe uzten sentitzen duen haurra, gero, helduaroan, solidarioa izango da eta askotariko ekimenetan parte hartuko du.

Beste hainbat jokaerak ere "kutsatzen" du zuzentasuna, esate baterako, besteen jabetza errespetatzeak, auzoko dendan haurrari bueltan eman dioten gehiegizko dirua itzultzeak, guztiona den igogailua zaintzeak, pipa-azalik lurrera ez botatzeak atezainak garbitu beharrik izan ez dezan, garbitu berri den ataria berehala ez zikintzen ahalegintzea... Eguneroko jardura txiki horien eraginez, bikain bihurtzen gara maitasunerako, sentibera zuzentasunerako, bestearen beharretarako.

Etxean, beste hainbat jokaera ere irakasten da: paperak birziklatu, beira kontainerrean bota, nahiz eta erosoagoa izan zakarrontzira botatzea; puntu garbia aurkitu etxetresna elektriko zaharrak eramateko edo oraindik erabiltzeko moduan dagoen bigarren eskuko arropa erabili. Familian, justizian besteek behar dutena ez gastatzeko, neurritsuak izan eta birziklatzea funtsezkoa dela biziz gero, etxe horretako kideak solidarioak izango dira era oharkabe eta normalean. Elkarrekin zainduko dute mundua, era arrunt eta naturalean.

Eta haurra bidegabekeriaren aurrean sentibera den familian hazi bada, familian manifestazio eta ekitaldi solidarioetara joaten bada, gizarte zuzenago eta gizatiarragoa eraikitzeko, gauzak hobeto banatzen diren mundua eraikitzeko borrokatuko den heldua izango da. Klaseen arteko aldean, arrazakeriaren, matxismoaren... aurrean sentibera den familiak bizitza zailtzen eta iluntzen diguten kontu guzti hauen aldaketan esku-hartuko duten izakiak bidaliko ditu mundura.

Familiako norbaitek erakunde jakin batean boluntario bezala jarduten duenean, familia osoa aberasten da pertsona horren bizipenarekin. (Hogeita bi urteko semeak nagusien egoitzan laguntzen duenetik, gure mahaiaren inguruan nagusi horiek esertzen direla ematen du, behin eta berriz agertzen direlako beren gorabehera, poztasun eta iluntasunak... Maite ditugula esan dezaket eta gero eta sentiberago gaudela orain dela gutxira arte erabat ezezaguna genuen mundu horren aurrean).

Zuzentasuna, bihotzean sortzen den ohitura da, familian naturaltasunez, ahulenen aldeko ohiko jokaeren bidez, hartzen den ohitura. Etxera datorren eskalari atea ireki eta harrera egiten zaionean, bere istorio eta egoeraz arduratzean. Berarekin hitz egin, berari lagundu eta bitartekoren baten berri eman ondoren, bidezkoa emanda agurtu dugula sentitzen badugu, hau da, behatxulotik mesfidantzaz begiratu eta zerbait kentzera datorren norbaitengandik defendatzeko jarrerarekin, atea ireki ere egin gabe bidaltzen ez dugunean, jarrera zuzen eta solidarioa irakatsiko diogu elkarri, ahulenen aldeko sentiberatasuna.

Ez dut inoiz ahaztuko gizon bat atera eskean etorri zitzaigun egun hura. Une horretan, nire hiru seme-alaba txikiak eta ni bazkaltzera gindoazen. Gurekin dilistak jatera gonbidatu genuen eta, hasierako mesfidantzak gainditu eta gustura onartu zuen. Bere bizitza kontatu zigun, bere arazoarekin sensibilizatu gintuen eta guretzat ezezaguna zen mundu atsekabetu hura ezagutarazi zigun. Eta guretzat hain ohikoak diren berotasuna, zaporea eta erosotasuna biziki baloratu zituen norbaitekin jatekoa erdibanatzearen gozamena izan genuen. Amaitzean, nire seme-alabek beren itsulapikoetako dirua eman zioten... Batek baino gehiagok arriskutsutzat jo zuen gure jokaera, batik bat senarra ez zegoelako etxean, gizon hark zerbaite egingo zigulakoan. Maitasun handiz gogoratzen dut urtebetera bueltatu, lana aurkitu zuela esan eta hurrei dirua itzuli zien gizon haren izena. Egundoko irakaspena izan zen guratzat; Jainkoaren oparia, zuzentasunez joka dezagun beti, ez da-eta ohikoa izaten hori gure jarrera...

Gurasoek autora hurbiltzen zaien behartsuari 'La Farola' aldizkaria erosten diotela eta adeitasunez agurtzen dutela ikustean, hurrek behartsuekin elkartasunez jokatzeko, denok lana izatea dakarren zuzentasuna gauzatzen ikasten dute.

Etxe batean auzoko emakume nagusia zaintzen denean, alargundu berri denari arreta eskaintzen zaionean, eskailerak jaisteko zailtasunak dituen agureari laguntzen zaionean, gaixoari maiz eta samurtasunez deitzen zaionean... sentiberatasunez eta zuzentasunez jokatzeko da bakoitzari behar duena, zuzenbidez dagokiona emanez.

Garrantzitsua da, aldi berean, pribilegiatu garena konturatzea, ondasun ekonomikoen, afektiboaren, kulturalen banaketan egundoko zortea izan dugula aitortzea. Askotan, larregi daukaten pertsonen, beraiek baino gehiago dutenei begiratzen ematen dute bizitza osoa, banaketa bidegabea dela pentsatuz. Behekoei begira bizitzen jakin behar dugu eta denok gutxieneko beharrak aseta izateko lan egin, eta ordura arte ezingo dugu lo lasai egin.

Emakumeen aurkako tratua txarren kontua modan da azkenaldian eta asmo eta gustu txarreko milaka txiste dabil bolo-bolo, zoritxarrez hain hedatuta dagoen gizarte bidegabekeria hau txalotuz... Familian, gai honen eta beste hainbaten inguruan – esate baterako terrorismoa, gizarte zoritxarrak...- hitz egiteko erak markatuko du gizabanakoen sensibilitatea etxe horretan.

Nire familian gustuko dugu mahaia bedeinkatzea, gure otoitzeak gertaera desatsegin eta mingarriak bizi izan dituztenak sartzea, ezagun izan ala ez, gertuko ala urruneko, biktima ala borrarero. Batzuentzat oharkabe pasatutako berriak, Jaunari aurkezteak solidario egiten gaituela uste dut, hau da, nolabait, sensibilizatu egiten gaituela pertsonekin, bihotza samurtu egiten digula eta geure baitatik, geure bizitza txikitik aterarazten gaituela, bihotza mundu-mailako eginez.

Familiako bizitzan ikasten da, kutsaduraz, bidegabekeria salatzen ere. Norbait auzi zuzen batean konprometitzen denean, manifestaziora joan, sinadurak bildu edo beste edo antzeko jarduera solidarioa egitea proposatzen duenean, besteen aldeko sentiberatasuna bizten du familiako kideen artean eta konpromiso hori, apurka-apurka, ohiko bihurtzen da.

Azkenik, zorrotzak izatea, ez aurrezteko, inguruko pobretasunaz jabetuta, beste batzuekin banatzeko baizik, zuzentasuna gauzatzea da. Eta baita birziklatutako arropa erabiltzea, birziklatzea, norberarena besteekin banatzea, delako liburu edo jaka kontuz erabili eta beste norbaiti ematea ere... Guzti hori egitea, estilo solidario eta zuzena da, gizarte zuzen eta gizatiarrago egiten laguntzen duen estiloa eta askeago egiten gaituen, behar gutxiago izaten, bizimodu ordenatu eta arduratsuagoa bizitzen, gauzak zaintzen, hiritar hobe izaten eta hondakin gutxiago sortzen laguntzen digun estiloa.

Guzti hau ez da erraza. Nolabaiteko "familia egoismoa bedeinkatu egiten da"; hau da, denek onartzen dute ingurukoei onena eman nahi izatea, baita zarrastelkeria hutsa bada ere. Seme-alabek urruti ikasten badute, guraso hobea dela dirudi. Niri nekeza egin zait. Askotan, seme-alabek erakarri nautela zuzentasunera esan dezaket. Behin, duela urte asko, senarrari ezusteko ordainsaria eman zioten irabazi batzuegatik. Berehala pentsatu genuen zertan erabili: asteburua familian igarotzeko turismo-paradore batean, kapritxora... Igande horretako ebanjelioa komentatu genuenean, neska-mutilek esan zuten, ezustean iritsitako diru hori orduko beharrian larriren bati aurre egiteko ematea zela zuzenena. Elkarri begiratu genion... erdia ematea lortu genuen... eta ez genuen paradorerik dastatu, jakina... Baina elkartasun eta zuzentasunezko irakaspen handia eman zituten, asko kostata irakatsi geniena itzuli ziguten...

Seme-alabek aurpegiratu digute behin baino gehiagotan beraiek beste haur batzuek baino gutxiago izatea edo txaloak ere jaso ditugu banatzen jakin izan dugulako. "Zeken" deitu gaituzte edo "zikoitz" eta harro ere sentitu dira... nahaste-borraste handia!

Eskerrak, kristau familia bezala, Jainkoak samurtasunez maitatzera, zuzentasuna gauzatzera eta Bera bidelagun izatera gonbidatzen gaituen! Adi egon gaituzen, beraz, inguruan samurtasuna behar dutenei fereka, detaile eta musuak emateko; zuzentasunez bana ditzagun egitekoak, lekuak, maitasunak, esamesak eta atera gaituzen mundura besteen aldeko konpromisoa gauzatzera, gizarte zuzenago eta gizatiarragoa lortzeko, beti ere guztiok, eta batez ere bizitzako bidegabeko banaketan gutxien jaso dutenak, izugarri maite gaituen Jainkoaren eskutik. Eta berak zuzen ditzala gure erruak igarotzen garenean eta heltzen ez garenean.

Jainko Aita horrek irakats diezagula guraso izaten, maitasun eta zuzentasunean bizi den familia izaten, keinu eta hitz egokia izaten, ez dugu-eta erraztasunik izango.

Amen.

Mari Patxi Ayerra